

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1230

362/2024 EBAZPENA, otsailaren 14koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez zuzentzen baiten irailaren 29ko 1889/2023 Ebazpena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez izendatu baitzen lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahai kalifikatzailea Diplomadun Sanitarioak lanbide-taldeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren eta 2019ko abenduaren 24ko EHAako 244. zenbakian argitaratu ziren.

2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 10.1 oinarriarekin bat etorritik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiak lekualdatze-lehiaketa kalifikatuko duen epaimahaia izendatuko du Ebazpenaren bidez, eta epaimahai hori denboraldi jakin baterako izendatzea aurreikusitako ahal izango da, hurrengo esleipen-prozesuetan baremazio- eta balorazio-zereginak egin ahal izateko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 26ko 112/2021 Ebazpenaren bidez, zenbait alderdi ezarri ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahaietako kideak izendatzeko, eta zehaztu zen epaimahai batek bilduko dituela Diplomadun sanitarioak lanbide-taldean integratutako kategoria guztiak, partzialki aldatutakoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusiaren uztailaren 8ko 922/2021 Ebazpenaren bidez.

Aipatutako Ebazpenaren atal ebazleko bigarren apartatutak ezartzen ditu Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren epaimahaietako epaimahaiburuak, epaimahaikideak eta idazkariak izendatzeko zozketa arautuko duten arauak. Epaimahaikide gisa parte hartzeko zozketa publikoa egin behar da epaimahaikideen artean, dagokion Ebazpenean jasotako arauen arabera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 3ko 1314/2023 Ebazpenaren bidez, zenbait irizpide ezarri ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahaiak berritzeko eta epaimahaietako kideak izendatzeko.

Aipatutako 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 10.1 oinarriarekin bat etorritik, irailaren 29ko 1889/2023 Ebazpena eman zen, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez izendatzen baitzen lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahai kalifikatzailea Diplomadun sanitarioen lanbide-talderako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako (2023., 2024. eta 2025. urteetan argitaratuko diren Kudeaketako Langileen kategoria guztietako destinoak eskaintzeko zikloetan).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 19ko 108/2024 Ebazpenaren bidez, irailaren 29ko 1889/2023 Ebazpena aldatu zen, eta hau ebatzi zen: «izendapenaren iraupena 2023an eta 2024an argitaratutako lehiaketa ireki eta iraunkorreko destino-eskaintzaren zikloak amaitu arte luzatzea».

2024ko martxoaren 8a, ostirala

Irailaren 29ko 1889/2023 Ebazpenarekin batera doan eranskinean, epaimahai kalifikatzailea osatzen duten kideen zerrenda agertzen da. Zehazki, honako hauek izendatzen dira:

Laugarren epaimahaikidea:

Titularra: José María Quijada Gutiérrez.

Ordezkoa: Miren Koldobike Querejeta Pinzolas.

2023ko uztailaren 17an zozketa egin zen, epaimahaikideak izendatzeko pertsonen zerrenda osatzeko asmoz. Zozketa horretan, Miren Elixabete Querejeta Zabalo izendatu zen epaimahaikide titularraren lehenengo ordezko.

Irailaren 29ko 1889/2023 Ebazpena eman ondoren, José María Quijada Gutiérrez jaunak ez ditu betetzen epaimahai kalifikatzailean parte hartzeko legezko baldintzak, eta, beraz, ordeztu egin behar da.

Beraz, bidezkoa da José María Quijada Gutiérrez jauna Diplomatu sanitarioen lanbide-taldeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahaiko laugarren epaimahaikide titular izendatu izana baliogabetzea, eta bere garaian ordezko izendatutako pertsona epaimahaiko laugarren epaimahaikide titular izendatzea, eta, ondorioz, bere garaian ordezko izendatutako pertsona laugarren epaimahaikidearen ordezko izendatzea.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren irailaren 29ko 1889/2023 Ebazpena, zeinaren bidez izendatzen baita lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahai kalifikatzailea Diplomadun sanitario lanbide-talderako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetarako (2023. eta 2024. urteetan argitaratuko diren Diplomadun sanitarioak kategoria guztietako destinoak eskaintzeko zikloetan, 2025. urtean argitaratuko diren eskaintza-zikloak ezereztu ondoren, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 19ko 108/2024 Ebazpenak egindako zuzenketaren arabera), honela:

Diplomatu Sanitarioen lanbide-taldeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahaiko laugarren epaimahaikidea lanpostuaren titularra den José María Quijada Gutiérrez jaunaren izendapena baliogabetzea.

Miren Koldobide Querejeta Pinzolas izendatzea Diplomatu sanitarioen lanbide-taldeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahaiko laugarren epaimahaikide.

Miren Elixabete Querejeta Zabalo izendatzea Diplomatu sanitarioen lanbide-taldeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahaiko laugarren epaimahaikidearen ordezko.

Beraz, kalifikazio-epaimahaiko laugarren kidearen lanpostuari dagokionez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko epaimahai kalifikatzailea izendatzen duen irailaren 29ko 1889/2023 Ebazpenaren eranskina honela idatzita geratuko da:

Laugarren epaimahaikidea:

Titularra: Miren Koldobike Querejeta Pinzolas.

Ordezkoa: Miren Elixabete Querejeta Zabalo.

Bigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 10.1 apartatua eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari

nagusiaren urtarrilaren 26ko 112/2021 Ebazpenaren lehenengo apartatuko a) atala aplikatuz, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 19ko 108/2024 Ebazpenaren bidez egindako aldaketa kontuan hartuta, izendapen hau 2023ko martxoko zikloa eta 2023an eta 2024an argitaratuko diren destinoak esleitzeko gainerako zikloak amaitu arte luzatuko da, eta, hala badagokio, izendapen horri legokiokoen luzapena salbuetsita geratuko da.

Hirugarrena.– Irailaren 29ko 1889/2023 Ebazpenaren gainerako edukia mantendu egingo da, orain ematen den Ebazpenak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 19ko 108/2024 Ebazpenak egindako aldaketek eragiten ez dioten bitartean.

Laugarrena.– Ebazpen hau EHAAan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Bosgarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteke epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 14a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.